

## Ababor eta istribor

S

asoi oneko gizon gordinaren ipuin izugarria kontatu dit martiztar herrenak. Astiro kontatu dit. Patxadaz. Hotsanditasunean.

Aizkolari aparta, politika-bilketan hizlari bakana eta auzogatazka gorrietan jendetasan biribileko gizasemea zen Gergorio. Aparraren lurruna bizi zuen, une betean zegoen.

Nor baino nor, hura beti txapel-dun. Nor baino nor, beti zentzuzko.

Martiztar herrenak azaldu didanez, goiz gorritik gau urdinera, bat-batean egin zion ihes adinaren loreak Gergoriori.

Igande batez eman zioten bizitzako albistea: aitona egin zuen alabak. Astelehenean bertan azaldu zitzaion lehen ile urdina, kasko sarrira. Asteazkenerako, loki biak zeuzkan zilarrezko.

Ez zen hilabetea igaro, eta osoa soildu zitzaion. Begia lainotu. Eskua baldartu. Hanka moteldu.

Aguretan, bakarzale bihurtu zen: etxean itxi zuen bere burua.

Karkaxak loditu, eta listu zikinekin zurbildu zitzaion aurpegi ederra izana.

\* \* \*

Nafarroatik jaso dut galdera. Zerk egiten gaituen eskuineko, hala egin dit Errok akui-luarekin. Gizon gordina zahartu zuen jaioberrria etorri zait burura.

Ezerk egitekotan, ezker besomotz batek egiten gaitu eskuineko.

Ez dut zalantzarik.

Maximalismora moldatutako ezkerak egiten gaitu eskuineko. Hitzik eta handienak ahoratuta, urratsik eta txikiena egiteko gaitasunik ez duen karramarro horrek eragiten du gorakoa.

Ezgaitasun handi xamarradario.

Autokritikari aterik eta leihorik irekitzen ez dion ustezko ezkerak egiten gaitu eskuineko. *Mundua dago oker*, hori besterik ahoratzen



J. I. Basterritzea

Borda

Erro

Rigor mortis.

ez duen lastozko ezker horrek egiten digu zangalatraba.

Egokitu ezinaren eri nabarmena du.

Txapela beltz nahiz pamela zuriz, aratusteetatik kanpo baizik mozarrotzen ez den ezkerak egiten gaitu eskuineko.

*Hau erabaki da* bezalako lelo hutsalekin eusten diona monolitismoari, edukietan eta formatan.

\* \* \*

Zein ezkerreko? Zein eskuineko?

Baina badakit, jakin, zein balizko ezkerrek urdin diezadakeen odola. Iparrizarrari so, bularreko istriborrera herrestan daramana inoren bihotza.

Ustezko ezker hitsaren pentsamendu bakar-rak xaxatzen du nire duda: ezin inorekin ezer adostu. *Aut vincere, aut mori* (irabazi ala hil).

Odol garbiko lasterketa-zaldiaren haziak ez du moxalik ernalduko, baldin eta behorrik kausitzen ez badu belardietan...

“Bada bidezidor bat, sahasen eta pikumasustondoen artean doana; bainu bat hartzearren, urmael sakonera hurbiltzen diren errantxoetako umeen joan-etorriek eta, gaez errepidetik uraren abarora hurbiltzen diren arrotz alderrai nekatuen oinek gogortu duten lur-buztinezkoa. Hainbat suren hondar, errauts piloak zutitzen da basa-piku erraldoiaren adar etzanaren aurrean; bertan eseri diren gizonek leundurik dago enbortzarren azala”.

John Steinbeck idazlearen hitzak dira (*Arratoiez eta gizonez*). Hogeita hamazazpikoak, azken gerra bezala.

Hitz-asperturako enborra falta denean, orduan egiten du balizko ezkerak inor eskuineko.

Urmaela bera, zingira bihurtu baita.

Padura lehortuan, nork egin dezake boga ababorrera? ■



Ezerk egitekotan, ezker besomotz batek egiten gaitu eskuineko. Ez dut zalantzarik. Maximalismora moldatutako ezkerak egiten gaitu eskuineko. (...) Autokritikari aterik eta leihorik irekitzen ez dion ustezko ezkerak egiten gaitu eskuineko

